

# Nafarkaria

• ostirala • 2000ko ekainaren 16a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Iruñea** • Artze anaien «Oihana auhenka» ikuskizuna eskainiko dute gaur Burgoen plazan.

**David Mariñelarena** • «Apustu gehiago eginen balira, segazaletasuna piztuko litzateke»

## Laguntzeko txakurrak



Asteburu honetan zail samar izanen du Urbanan galdu nahi duen ziza-bilatzaileak, dozena bat laguntza-txakur talde izanen baititu bere bila. Izan ere, Nafarroako Laguntza Txakurren Taldeak antolatuta, hainbat lekutako salbamendu txakurren taldeak bilduko dira gurean. Salbamendu txakurrak galtzen diren pertsonak aurkitzeko propio entrenaturiko txakurrak dira. Galdu dena aurkitzen dutenean, ero moduan jartzen dira, zaunka aunitz eginez. Galdu den pertsonari horrelako txakur batek salto egiten badio, lasai egon behar du, txakurraren laguntzaz aurkituko dute eta.

• CRISTINA BERIAIN



Iruñea •


# Basoaren aieneak

Artze anaien 'Oihana auhenka' ikuskizuna eskainiko dute gaur Burgoen plazan

Iruñeko Burgoen plazak, udaletxe ondoan dagoen plaza ia ezezagun horrek, baso baten itxura hartuko du gaurkoan. Iruindarrek 22:30etik aurrera entzun ahal izanen dituzte aienek oihanaren soinu guziak.



«Zuhaitz bezala hazten da gizakumea goruntz argiruntz, nahiz eta sakonean sakonago orduan eta goratasunean gorago» (Joxanton Artze) • CRISTINA BERIAIN



**O**RAIN ARTE BI ALDIZ BERTZERIK ez dute eskaini *Oihana auhenka*. Iragan urtean basoarekin zerikusia zuen ikuskizun bat prestatzeko eskatu zion Donostiako Jazz Taldeak Joxanton Artzeri. Kursalean azaroan emateko sortu zen *Oihana auhenka*. Gero, Gotainen (Zuberoan) eskaini zuten. Hirugarrena, Iruñean emanen dute.

Joxeanton Artze eta Jesus Artze dira ikuskizun honen atzean. «Beti esan izan da izadia liburu sakratua dela irakurtzen dakienarentzat», erran zuen JoxAntonek ikuskizunaren aurkezpenean. «*Oihana auhenka* espektakulan izadia irakurtzen saiatu gara». Ikuskizunean soinu oniriko eta lanbrotsuz inguratutako basoaren aienea erakusten dute ordu eta laurdenean. «Izadia ez da bakarrik agerian duguna», jarraitu

zuen JoxAntonek. «Izadia hiru munduk osatzen dute: fisikoa, psikikoa eta izpirituala. Hirurak jasotzen ditu *Oihana auhenka*».

## Artista zerrenda luzea

*Oihana auhenka* ikuskizunak baso baten soinu guziak bildu nahi ditu. JoxAnton Artzeren olerkiak dira ikuskizunaren ardatz. Jesus anaiarekin batera, lau txalapartaren soinu hedatzen dute. Horiei gehituko zaizkie Beñat Axiariren ahots soinu inprobisatuak, Mixel Etxekoparren mila instrumentuen musikak, Jose Le Piezen eskultura soinuaren presentzia, Dominique Regefiren biolina, eta Joxe Bikondoa eta Alfontso Gorostera zuen aitzakorakadak. Iruñeko euska-

ra teknikari Iñaki Azkonak azaldu duenez, horiei guzietan txalapartaren ttakun sarkorra gailentzen zaie finean, eta aitzakoraren kolpe sinkronizatuak lortzen dute soilik tokia egitea.

Azkonaren aburuz, «Artze anaiak euskal kulturaren berpiztean garrantzi handia izan dute, eta hala izaten segitzen dute. Txalapartak Euskal Herrian lortu duen garrantziaren arduradunak dira Artze anaiak. Oraingo lan hau poesiararen eta txalapartaren bidetik abiatzen da. Poesia osatua da, kantuarekin osatua, giro berezi batez inguratua. *Oihana auhenka* ikuskizun honek merezi du. Beste urrats bat egin du euskal kulturaren».

## Egurraren musikaltasuna

*Oihana* da ikuskizunaren ardatza eta, hortik abiatuta, naturaren eta gizakiaren arteko elkarrizketaz, harremanaz, osagarritasunaz hitz egiten dute, JoxAnton Artzek adierazi duenez. «Anaia eta biok hemen egin dugu aspaldian egin nahi genuen gauza bat», erran du JoxAntonek. «Txalaparta lau oholekin jotzen dugu. Eta lau oholak jotzen ditugunean jotzen dugu oihan batean dauden zuhaitz guziak joko bagenitu bezala». Giro hori sortzeko baso bat eraikitzen dute. Artze anaiak joko dituzten lau txalaparten hamasei oholak zutik paratzen dituzte hasieran. Etzan, eta jo egiten dituzte.

«Axiarik momentuan bertan

bere ahotsarekin janzten-ditu testuak», esplikatu du JoxAntonek. «Eta Etxekoparrek basoko txoriak eta haizeak irudikatzen ditu». Parisko basozain Jose Le Piezek, berriz, eskulturak egiten ditu ikuskizunean. «Zuhaitzak berak eskatzen dion forma ematen dio eskulturari, eta gero, eskultura horiei soinu ateratzen die eskuarekin igurtziz. Eskultura bakoitzak bere hots berezia du. Eta arte martzialean ere maisu denez, dantza mota bat egiten du jotzen ari den bitartean. Oso gauza bitxia da».

Eta gero bi aitzakorak sartzen dira. Biek etzanda dauden enborrak mozten dituztenean txalaparta antzeko zer-bait jotzen dute. «Horretan ez dago indarra bakarrik», erran du JoxAntonek. «Badago ere halako edertasun bat, keinue-na, eta ateratzen duten hotsean badago musikaltasuna, erritmoa».

→ Asier Azpilikueta

irulegitik

JOJO BIDART



## Aintzin-gibelkako martxa

**G**Iparraldeak azken urte hauetan bizi duen aldaketari ikuspegi abertzaleak so eginez, iduri luke mugimendu aurrerakoi batean sartuak girela. Baina ez ote dea gehiago aintzin-gibelkako martxa bat?

Sekulan ez da hainbeste politika gizon edo administrazio kargudun euskararen alde mintzatu denik. Eurokarta, Euskal erakaskuntzaren garapena, Hizkuntzaren Kontseilua eta hizkuntz politika abertzale esferatik atera dira gizarteko aipagaia bilakatzeko. Baina hitzen errannahia ez da denentzat berdina eta interpretazioen arteko desfasea handituz doa erabakiak hartzeko momentuan.

Eta presoak beti urrunduak!

Ipar Euskal Herriak bere etorkizuna eskuetan

hartzeko duen gaitasuna eta beharra bultzatu dute azken hamar urte hauetan Euskal Herri 2010 eta Garapen Kontseilu bezalako egitura eta egin molde-ek. Geroa antolatze gure komunitatearen berezitasuna eta nortasuna kondutan hartu behar direla nehorke ez du dudaren emaitza iduriz. Alta lehen ohar-tze horren ondorioa ditakien egitura administratibo bat xutik ezartzeko bidean ez gira sartuak oraino.

Eta presoak beti baztertuak!

Mugaz gaineko lurraldeen arteko loturak azkartu edo eraiki behar direla alde guzietatik entzuten da. Konsortzio, Interreg, Euro-Hiri xutik ezartzen ari dira abiadura handian baina Euskal Herriko zazpi probintziak bateratzen dituen proiektuak ez dira oraino "politikoki garbi" ikusten. Alde batetik beha-

rezkoa eta guziz normaltzat hartua dena, beste aldetik mamu beltza eta beldurgarri bezala erakutsia da.

Eta presoak beti preso!

Presoen inguruan ere sortu da Iparraldean sekulan ikusi ez dugun mobilizazioa. Ogoi mila izenpe-dura, sindikat, elkarte, hautetsi aintz agertu dira presoen urbiltetaren alde. Denbora berean disper-sioa azkartu da Frantziako presondegiatan.

Euskal presoak beti preso urrun eta baztertuak!

Oro har egia da Iparraldeko jendartea jazartzen eta inplikatzeko hasia dela baina poderea bere hortan egoiten da tinko.

Kontzientzia aintzina, erabakiak gibelka. Ezin segituzko martxa!



# Bortzirriak • Ikastolek 25 urte



urda  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

Asteburuan egingen dituzte euren ospakizun handienak Bera eta Lesakako ikastolek

Orain 25 urte sortu ziren Bera eta Lesakako ikastolak. Ordurako Nafarroan bertze zenbait ikastola bazeuden arren, Bortzirietan paratzen lehendabizikoak izan ziren. Ikasturte osoan zehar 25. urteurrena ospatzen ibili ondotik, larunbatean Beran eta igandean Lesakan ospatuko dituzte besta egun handiak.



Berako eta Lesakako ikastolek (argazkian Berakoa) euren historiako 25. urtearen irudiak bildu dituzte bi erakusketatan  
• EGUNKARIA

**A**ITZINDARIAK IZAN DIRA 25 urteotan bi ikastolak euskara Bortzirietara hedatzen. Makina bat oztopo gainditu behar izan dute ibilbide horretan, nahiz eta hasiera-hasieratik gurasoen eta herritarren onespina jaso.

Berako ikastolak legeztatzea 1983ko Nafarroa Oinez-en ondorengo lortu zuen, maristen ikastetxe zaharra konpondu zutenean. Lesakakoak geroago eskuratu zuen baimena, Nafarroa Oinez 1988an egin baitzuen. Geroago ere une zai-

lak etorri dira, DBH emateko bat egin eta oraindik ere baimena ukaturik baitute, nahiz eta legeak eskatzen dituen betekizun guztiak edukitu. 1994ko Nafarroa Oinez-ek zapo gazi-gozoa utzi zuen Beran. Gozoa ikastola berria eraikitzeke dirua lortu zelako, baina guztien oroimenean daude oraindik bestaren akaberran gertatutako istiluak.

Ibilbidea iruditzen bildu nahi izan dute ikastolek bi erakusketarekin. Lesakan zein Beran 25. urteotako argazkiekin osatu dituzte erakusketak. Lesakakoa ekainaren 18a bitarte egonen da ikusgai, eta Berakoa, berriz, ekainaren 23a arte. Argazki ugari bildu dituzte, urte horietan guztietan atera-

takoak. Berako kultur etxean 1.100 argazkitik goiti zintzilikatu dituzte, eta bertze anitz paratu dituzte albunetan. Lesakan ere anitz izan dira bildutakoak.

Lesakako Tantirumairu ikastolak 25 urteak biltzen dituen CD-ROMa osatu du, irudi eta musikaz hornitua. CD-ROMa egiteaz Xabier Pumar arduratu da, eta erakusketan ikusgai dauden argazkien aukeraketa bat egin dute. Euskal Herriko gainerako ikastolek egin bezala, 25. urteurrenaren kariaz liburua argitaratuko dute Tantirumairu ikastolak eta Labiaga ikastolak.

Urte osoan makina bat ekitaldi antolatu dituzte bi ikastolek. Asteburuan, eta urtero

egiten duten moduan, bazkari batekin emanen diote akabera ikasturteari. Labiaga ikastolak egitarau berezi-berezia antolatu du. Kirolean ariko dira larunbat goizean ikasle eta irakasleak, antzerki erakustaldia eskainiko dute gero 6. mailako ikasleek, eta eguerdian bazkaritara elkartuko dira hirurehun bat lagun. Ondoren, Zizkuitz txaranga eta haurrentzako pailazoen emanaldia izanen dituzte. Lesakan, berriz, besta igandean egingen dute. Egun ikastola osatzen dutenekin batera, garai batean ibilitako irakasleak, ikasleak eta gurasoak elkartuko dira.

→ Jon Abril

herri aldizkariak  
Edurne Elizondo

## Gure Irratiaren kanpaina

**Gure irratia**-k hil honetan abian jarri duen kanpainaz mintzatu da Herria astekaria bere azken zenbakian: «Hain handi batean botere publikoetarik etortzen diren diru laguntzek dute biziarazten **Gure irratia** gaur egun. Parise, Paue eta noiztenka Bordenetik heldu diren laguntza horiek bidezkoak dira are gehiago oraino zerbitzu orokor bat eskaintzen duelako irratia horrek. Inportanteak izanik laguntza horiek ez dute kondutan hartzen euskaraz itzuli behar dituela irratia horrek berri eta ageri gehienak. Bestalde, laguntza publiko horiek ez di-

ra segurrak, uste gabeen ttipi edo desgert daitezke, proiektu bati lotuak direlarik edo botere publikoetan zerbait al daketa politiko gertatzen delarik».

«Entzulea ohartzen hasia da hain segur hilabete parrasta bat honetan ari dela **Gure irratia** hobetzen, irratilari ekipa emendatua dela eta aktualitateari hurbilago lotzen dela. Hobekuntza hori argi eta garbi erakusten dute Mediametrie etxeak argitaratu eman xifreek: BAM hartuz bakarrik tanto eta erdiko entzumena zuen 96an, 1.8koa 97an eta 99an 2.3tara hupatu zaio».

«Baina hobekuntza horiek guziek buxetarik handitzen dituzte. Irulegiko Irratiak eta Xiberoko Botzak egiten duten bezala, **Gure irratia**-k ere deliberatu du joandean urtarileko biltzar nagusian etxez etxe ibiltzea ekain honetan Lapurdiko 20 herritan. Kanpaina horren goi puntua izanen da Zuraiden, **Gure irratia**-ren bestarekin ekainaren 18an, Chihar trinketeen. Denek partekatuko dute hor bazkari alegera, mutxikoak eta bertulariekin. Arratsaldean izanen da kantaldia Erramun Martikorena, Carolina Phillips eta Mixel Ducaurekin».

## Bost

**Bat:** Hizkuntza Politikaz deus ere jakin gabe Hiru Erregeen Hotelaren gainean egin dute habia. Hala uste dugu guk behintzat. Belatzak dira, harra-  
pari bikotea. Iruñean bizi dira, ni bizi naizen modu berberetan. Auzokideak ditugu. Askotan San Lorentzoko San Fermin kaperaren dorrearen puntan, behaketa lanetan ikusi ditugu, arra eta emea zein den bereizketak egiten jakin gabe, antzekoak baitira oso. Susmoa dugu Takoneran, Eremu Mistoaz ja ere ez dakiten orein eta ahuntzen artean, ibiltzen direla ehizan. Behin gure leihotik ondoko teilatuan dagoen antenara etorri zen horietako belatz bat. Atzaparren artean ekarritako xagutxoak gure aurrean hil eta mokau txiki batzuen ondorengo oso-osorik irentsi zuen. Dokumentaletan bezalaxe, bai horixe. Ikusgarria izan zen. Ikusgarria eta kurioa: Iruñea Babestutako Naturgunea ez dela jakin gabe normal-normal bizitzen segitzen dute animalia horiek!

**Bi:** Lanetik bueltan datorrela, neska-lagunak egunero minutu batzuk ematen ditu Takonerako ahatei begira. UPNri buruz ja ere ez dakiten basahateen sei txito berri jaio direla esan zidan orain dela bost egun. Handik hiru egunetara, herenegun, lau besterik ez zituen kontatu ahal. Matias Mugikaren artikulua irakurri gabe bizi diren katuen asuntubat izan daiteke, edo-eta belatzeeen ere bai.

**Hiru:** Kontua da gaur hiru txito besterik ezin izan dituela kontatu. Elurraz, hosto gorrituez, Aurelio Artetaren ideologiaz ezer jakin gabe jaio eta desagertu diren txito horien hezurtxoak dagoeneko Alde Zaharreko teilatu baten gainean egongo dira segur aski, txuri-txuri eginda.

**Lau:** Arratsaldero salako leihotik ikusten dugun telebistaren antena hori Golgota mendiko gurutzaren antzeko zer edo zer bihurtzen ari zaigu. Ordu horietan hasten baita ehizan Pancha Navarrete buruz inongo berririk ez duen belatz bikotea. Zer esango dizuet... Pena handia emango zigun gure aurrean txitoa nola irensten duten ikusteak. Dena den, jakin badakigu, gertatu daitekeen gauza dela. Antenen ofizialtasuna edo ofizialtasun eza belatz bost axola baitaie. Bost. ●



# Galdutakoak aurkitzeko txakurrak

Hainbat salbamendu-txakur taldek Urbanan itxuratzea egingen dute asteburuan

**Gaua da, eta mendian galdu denak orduak eman ditu bakarrik. Goseak akabatzen dago eta etsipenean sumindurik. Halako batean, otso itxurako txakur baten zaunka ozenak entzun ditu hamar zentimetrora. Normalena bihotzekoa ematea litzateke. Baina lasai egon beharko luke, aurkitu egin dute-eta, salbamendu txakur baten laguntzaz.**

Nafarroako Laguntza Txakurren taldea 1995eko hasieran sortu zen. Lehen urte eta erdia txakurrak entrenatzen eman zuten, eta prest zeudenean Nafarroako Gobernura jo zuten hitzarmena sinatzeko. Egun, taldea 112 telefonoaren bidez koordinatzen dute, eta Nafarroako Gobernutik soilik jasotzen dute larrialdietan erabiltzeko ekipoa.

Hamahiru lagunek osatzen dute taldea. Haien txakurrak artzain txakurrak dira, alemaniarrek zein euskal artzain txakurrak. Collie bat ere badago. Inaki Lasa sorreatik dago taldean. Inakik bi txakur ditu galdutakoak aurkitzeko propio entrenatuta: Aida eta Otzan.

## Norbait galdu egin da

«112 telefonotik deitzen dute eta esaten digute halako lekuan galdu egin dela norbait», azaldu du Inakik. «Orduan ematen dizkigute lehenbiziako datuak: zer gertatu den, zein adinetakoa den, zein gorabeherak dauden, nola dagoen jantzita... Hori jaso bezain pronto, elkarri deitzen diogu, bide arautu bati segituz. Txakurra hartu eta abiatzen gara. Lekuan egoten da operazioaren burua, eta hark esaten digu zehatz-mehatz zer gertatu den, eta lan jakin bat ematen digu operazio planaren barruan».

Emaniko eremuan bilatzen hasten dira txakurra eta gidaria. Txakurrak galdutakoaren usainari segitzen dio. Baina ez diote haren gauzarik ematen usnatzeko. «Usaimen ikaragarria dute», dio Inakik. Salbamendu txakurrak entrenaturik daude galdu egin den pertsonaren usainaren arrastoa segitzeko. «Guk erakutsi diegu gustuko duten hori jasoko dutela galdutakoa aurkitu eta gero», azaldu du Inakik. «Hori da entrenamenduari funtsa. Hortaz, galdutakoa aurkitzen dutenean, haiek pentsatzen dute betiko kontua dela, entrenamenduetan egiten duten hori bera. Ero moduan jartzen dira,

zaunka egiten dute, eta zaunka horiei jarraituz ailegatzen gara gu».

## Eguneroko entrenamendua

Izatez, edozein motatako txakurrak izan daitezke erreskate txakurrak. Dena den, erraten dutenez, artzain txakurrak dira hoberenak, gizakiarekin harreman estuagoa izan dutelako beti. Nolanahi ere, txakur instintiboak behar dute izan, independenteak, beren kabuz baliatzen dakitenak. Nagusiaren ondoan uneoro dauden txakurrak ez dituzte erreskate lanetarako nahi. Jakin behar dute zein den bere nagusia eta nagusiari obeditzen. Eta beste txakurrekin ibiltzen ere jakin behar dute. Salbamenduetan izaten di-

ren zarata, hotsak eta bestelakoak ere ongi ezagutu behar dituzte ez ikaratzeko, eta jende anitzren artean egoten ikasi behar dute.

Hori guzia egunero entrenatzen ikasten dute. Txakur taldekoak astebururo elkartzen dira «galdutakoak» aurkitzeko. Baina, egunero, nagusiak bere txakurrekin egin behar du lan, batez ere obediencia lantzen. Inakik dioenez, teoria badago, baina, batez ere, praktikan ikasten da txakurra salbamendu lanetan lagun izaten. «Txakur guziak diferenteak dira, eta txakurra mugitzen ikasten da. Txakur guziek dute bere munda, beren izateko modua, eta hori errespetatzen jakin behar da. Zure txakurra ezagu-



Aida euskal txakurra eta Otzan alemaniar txakurra biziak dira oso. Hala behar duen Inaki Lasa nagusiak saria emateko gauzak behar bezala egiten duten txakur pusak Aida-i eta Otzan-i.

CRN BERRAIN

**Salbamendu txakurren artean daude galdu diren pertsonen arrastoa segitzeko. Erakutsi die gustuko duten hori jasoko dutela galdutakoa aurkitu eta gero. Hortaz, galdutakoa aurkitzen dutenean, ero moduan jartzen dira, eta zaunka egiten dute horien esperoan.**

tu behar duzu, baita besteei ere».

## «Hutsegiteak ez dira txakurrenak»

Euren lanaren garrantzia kontuan izaten dutela dio Inakik. «Oso argi dugu eskuartearen duguna. Larrialdietan denbora oso inportantea da, eta txakurrak lastertasuna ematen du. Gertatu zaigu, esate baterako, galdutako dagoen pertsonak hiruretan pilula bat hartu behar izatea. Eta hori hartzen ez bazuen aukera guti zituela salbatzeko. Presioa ikaragarria da orduan. Erlojuaren kontra ari zara, baina bada-kizu txakurrak azkarrak direla. Gero aterako da ongi edo gaizki, baina horretan beste faktore batzuk ere izaten dira tartean».

Inakiren aburuz, txakurrek beti egiten dute egin behar dutena. Baina badira beste faktore batzuk txakurrekin zerikusi zuzena ez dutenak. Inakik esplikatu duenez: «Demagun ari zarela baso batean bilatzen eta operazio buruak gaizki antolatuta duela ingurua. Behar-bada leku batetik ez zara pasatzen ari, eta hain justu leku horretan dago galdutakoa. Hutsegite horiek ezin zaizkio txakurrei leporatu».

Txakurra ez doa bakarrik. Gidariarekin batera taldea osatzen du. «Txakurrak bere lana egiten du eta gidariak adi egon behar du, interpretatu behar du txakurrak zer

## Itxuratzea Urbanan

Gaurtik igandea bitartean, Nafarroako taldearekin batera, Elorrio, Asturias, Bartzelona, Sanboi, Llobregat, Errioxa, Huelva eta Malagako salbamendu-txakur taldeak izanen dira Nafarroan, esperientziak trukatzeko. Gaur harrera egingen diete; bihar goizean, berriz, eremu zabaleko itxuratzea egingen dute Urbanan; eta igandean, azkenik, simulakroan erabili teknikak aztertuko dituzte.

«Etorriko diren askok hondakinetan soilik egiten dute lan, eta erakutsi nahi diegu nola egiten dugun lan guk eremu zabalean», azaldu du Esther Garrotek. «Mapa eman eta kilometro koadro batean bilatu beharko dute galdutako pertsona bat. Kontua da elkar ezagutzea, ikustea nola lan egiten duten besteei, eta informazioa trukatzeko».

Inaki Lasak azaldu duenez, urtean hiru

itxuratze antolatzen ditu Nafarroako Laguntza Txakurren Taldeak: hondakinetan, ibaiertzetan eta eremu zabalean.

Nafarroako taldea neguan Pajaresen egon zen ikusten nola lan egiten duten han hondakinetan. Hondakinetan eta eremu zabalean lan egitea arrunt diferentia da. Hondakinetan lan egiten dutenen txakur bizpahiru orduz aritzen dira. Eremu zabaleko lana, berriz, egun osoa da anitzetan. Txakurrak iraun dezake, baina aldiro motibatu behar da, lana ongi egin dezan.

«Asteburuan ikusiko dugu talde bakoitzak zein teknika aplikatzen duen eremu zabalean», erran du Inaki Lasak. «Uste dut jardunaldi hauetatik hausnarketa sakona eta orokorra ateratu behar dela lan honi buruz. Etorriko diren talde horiek zer erakutsi badute, guk ere badugu, eta jakintza horiek elkarri pasa behar dizkiogu».



marengana ailegatzen denean. Hori egin eta bere saria jasoko du».

## Laguntza eske

Nafarroako Laguntza Txakurren Taldea ez da Nafarroako Gobernuarena, baina harekin hitzarmena du. Taldean lau urte egin ditu Esther Garrotek. Bere ustez, Nafarroako Gobernuak ez du txakur taldea behar bezala laguntzen. «Txakurren mantenurako ez digute deus ematen», dio. «Anoraka, botak eta holakoak ematen dizkigute, larrialdietarako ekipoa».

Baina beraiek zerbitzu gehiago nahi dute. Larrialdietara ateratzen direnean, lanordu zehatz batzuk galtzen dituzte, Estherek dioenez. Ez dute soldarik nahi, baina ordu horiek Nafarroako Gobernuak ordaintzea ez lukete gaizki hartuko. «Ez dute deus ematen hau egitera ateratzeko. Gobernuak ongi geratzen dira Nafarroan salbamendu txakurren taldea dagoelako. Baina lan jartzen dutenak gu gara. Erraztasunak eman beharko lituzkete».

Antza, beste toki batzuetan txakur taldeak beste modu batean tratatzen dituzte. «Murtzian txakur taldekoek esan zuten muntatu nahi zutela talde bat eta dirua behar zutela», kontatu du Inakik. «Hiru milioi eman zizkieten. Ideia aurkeztu eta dirua jaso. Guk ez genuen horrelakorik egin.

Guk Gobernuarekin jo genuen gure txakurrak operatiboak zirenean». Galdutakoak aurkitzeko laguntza txakurren taldekoek, beraz, Administrazioaren partetik laguntza handiagoa nahi dute euren lana hobeki egitearren.

→ Asier Azpilikueta



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Politikoki ez zuzenak?  
(eta II)

Leitzako Antonio Lizartza, Nafarroako erreketen burua izan zena, 36ko gerrate bezperan altxamendu faxista antolatzen ibili zirenen ondoan izan genuen.



Antonio Lizartza Iribarren Leitzako Frantziskenean jaio zen, 1891ko urtarrilaren 17an, sendi karlista porrokatu baten altzoan. Belgikako Gembloux hirian ikasi ostean, Iruñera egin zuen Aldundiko mendi-begirale, eta familiaren ideologiari hertsiki atxikiz, gazteri jaimistan eman zuen izena, eta zerabilen indarke-riarengatik hasiera-hasieratik bere burua ezagutaraztera eman zuen. Honen adibide ezin garbiagoa zera dugu, 1917an kartzelan sartu zutela Gonzalez Reguerual gobernadore zibilararen aurkako eraso batean parte hartzeagatik.

Errepublikarekin ez oso kontent edo, erreketen berregintzan buru-belarri sartu zen. Horretarako Italiari buruz joan zen 1934ko martxoan Eskirozko Nikolas Beltzuntze, Zarrakasteluko Arbeloa, Getzeko Jose Sanz Orrio eta Iruñeko Jose Millaruelo, Paskasio Osakar, Emiliano Larrea eta Jaime del Burgo adiskideekin. Hasierako asmoa erdietsi ez bazuten ere, hau da, Errepublikarekin bukatzeko Mussoliniren laguntza militarra eta ekonomikoa eskuratu ez zuten arren, bai lortu zutela, ordea, erreketen buruak trebatzeko laguntza logistikoa. Hortaz, gerratea iziotu aitzin 8.500 erreketen karlista inguru bazeuden Nafarroan borrokan sartzeko prest, eta hauen ordezkaria Lizartza bera zen 1934eko irailaren 5etik.

Gerratea iristen ez zen bitartean, erreketek maniobra eta erakustaldi militarrek egiten zituzten nonahi, baita ezkertiar eta abertzaleen kontrako erasoak ere. EAJk Iruñean 1935eko martxoaren 27an egin zuen Aberri Egunean,

esate baterako, ekintza boikotatzaila ugari prestatu zituzten: Nafarroako bideberrien eta Iruñeko bazterretan orotan Espainiako bandera monarkikoen paratzeak eta margotzeak —sonatuena Atxitarre gauean jarri zena dudarik gabe—, eta berezi-bereziki amai gabeko mokokaldi eta liskarrak jeltzaleen kontra egun osoan zehar. Lizartza bera, gorago esan bezala, arras ostikozalea genuen. Areson hitzaldi ematetik Leitzako aldera zihoan batean bidaideek galdegin zioten ea zer gisa zegoen giro politikoa Leitzan, eta berak ha-

ten artean. Nahiz eta Mola jeneralak altxamendu guztiz militarra defendatzen eta nahikoa ikusten zuen, bere hasierako asmoen gainetik Lizartzak erreketen karlistek Espainiako bandera monarkikoaren pean borrokatzeko baimena sinarazi zion. Comunión Tradicionalistak erreketen matxinada uztailaren 15erako agindu zuen. Uztailaren 17an Lizartza Sanjurjorengana joan zen Portugal aldeko Estorilera, baina erregaia hartzeko aitzakiaz hegazkinak Burgosko Gamonalen lurra hartu zuela apro-

betxatuz, errepublikaren aldeko soldaduek atxilotu eta Madrilgo kartzelan sartu zuten. Giltzapetik 1938ko urtarrilean atera zuten, Irujo ministroaren eskariz eta falangistek Madril gainean eginiko bonbardaketengatik. Nafarroan heroi handia bailitzan hartu zuten orduan, eta erreketen koronela izendatu zuten. Gerrate ostean Lizartzak bere funtzionario lanpostuari eutsi zion berriz ere. Bigarren Mundu Gerra amaitu berri zenean, berriz, makien kontra gerrilla antolatu-

tzeko agindua eman zion Rodeznoko konteak Yague generalaren partez. Urte bertsuetan, Lizartza Osasuna futbol taldearen lehendakaria izan zen, 1941-1947 bitartean. Bizitza publikoa jada guztiz abandonatu zuenean, berak bizitakoak jaso zituen liburu txundigarri batean, *Memorias de la conspiración (1931-1936)*, Iruñeko Gomez argitaletxeak 1953an inprimarazia, eta 1969an laugarren edizioa izan zuena. Antonio Lizartza Iruñean zendu zen, 1974ko irailaren 27an.



gitz ongi, Baleztenatarrek eta Lizartzarrek hiri osoa kontrolatzen zutela; huraxe esan eta Leitzan bat-batean sartu ziren. Bide bazterrean zegoen gizatalde baten ondoan igarotzerakoan hauetariko bat Gora Euzkadi!-ka hasi zitzaion, eta Lizartza, aditu huraxe zegoen zegoenean ezin utziz kotxea geldiarazi, jaitsi eta dinbi-danba guztien kontra ukabilka hasi zen bakarrik geratu arte.

Lizartzak ere garrantzizko lotura izan zuen bakoitza bere kasa altxamendua prestatzen ari ziren militarren eta karlis-

etorri ahalean

Patziku Perurena



## Herodotoren estiloaz

Herodotoren historiak leitzen ari naiz, tarteka. Mundu zaharretik berri-rako pasabideak. Asiatik Europarako ikasbideak. Gure kultura zahararen aztarna galduak. Liburua hartu nuenean, uste nuen gerra kontuekin nazkatuko nintzela, baina, egia esan, Herodotoren estilo klasikoak ezin lezake inor nazkatu. Dionisio Halikarnasokoak Tuzididesekin konparatu omen zuen haren estiloa:

Gizakerak marrazteko duen trebetasuna, emozioen alorrean duen domeinuaren aldean; pertsuasioa eta gozamina, kementa eta tiranduraren aldean; labur esateko: edertasun maitakorra, Tuzididesen edertasun izugarriaren aldean. Aristoteles baino mendeak lehenago, Herodoto egiten du estilo elkarbigiztatuaren eredu, beste autore greko batzuek zuten estilo periodikoaren aurrez aurre. Lehenaz dio antzinako guziek eta bere garaiko batzuek erabiltzen zuten estiloa zela, eta ez duela amaierarik bere baitan garatzen duen gaia bukatu ezean. Zehazgabatasun horregatik, Aristoteles dio nekoso geratzen dela estilo periodikoaren aldean; azkeneko honetan irakurleak argi eta garbi hautematen baititu erakuntzaren egitura eta bukaera.

Floristan Imizkoz jaunak dionez terminologia modernoan identifika genezake, alde aldera, estilo periodikoa menpekotzearekin eta elkarbigiztatua lotze edo koordinatzearekin. Lehenaren ezaugarria da perpausetan periodo konplexuak izatea, nagusi baten menpera egituratuak. Perpaus modu horiek, batasun itxian, periodoa eratuz,osatzen dute elkar.

Estilo elkarbigiztatuari aldez, parez pareko perpausak ondozkatzen dira, elkarren menpekotasunik eta batasun-

nik batere eratu gabe. Hortik dator Aristoteles esana: hizkuntzaren erakuntza gaia agortzen denean bukatzen dela, ez egitura ixten delakotz, eta haren iritziz, nekosoago omen da, irakurleak ez baititu argitasunez ikusten kontuaren batasun desberdinak.

Ez dut sekula santan denborarik alferrik galdu literatur ondazaileren terminologia antzua, berbari zuri eta nahitahiez guzia sailkatu behar larraren sasi zikinean. Baina, bi estilo horietan, klasikoak dut neure guztizkoena inolako zailtasunik gabe: gaiaren indarrak esanera bihurtzen eta agortzen duenekoak, alegia. Norbaitekin hizketan hasi, libururen bat leitzen hasi, eta nerehala ohartzen naiz horretaz. «NOLA baino lehen ZER esaldazu grinez». Zeinen gauza ederra den hori, moteilek!

Pertsia, Lidia, Babilonia, Egipto, Libia... eta beste aleunka herri, gizaera, ohiteria, siniskera, gertaera, aldian aldian Herodotok bere gogoz ukituak. Zenbat aldiz ez ote dut topo egin euskal ohiteria eta siniskera askoren oihartzunarekin! Bat behar eta, Arionen heriotzeko kontuarena aipa nezake, beste gisako milaren artean.

Lehorrean ehortzia izateak edo gorpuari lurra gaineratzeak, hildakoaren arimari betiko atsedena zekarkion, eta hori ukatzea, Arioni egin nahi zioten bezala, zigorrak handienetako zen, Antigonaren tragedian ikus dezakegunez. Gauza berbera zen gure artean: heriotzera zigortuak uretan itoaz edo hil ondoan uretara botatzea. Eta han edo hemen ehortzitako gaizkilearen gorpua lur gainera ateratzen deneko kontuak, zenbat ez dira gure artean?

Horregatik ez da tenplorik eta erlijiorik itsasoan. Ezta aidean ere: arima erratu ttar harropux bat baino ez baita oraino Internet.

Ziria

• Motxorrosolo •

## Sadar ingurukoa

LEGEA ZINTZOKI BETE ETA BETEARAZI. ELEA BAINOAGO kalaka batzuen mihian. Giroak galdutako aukera gisa aurkeztzen digu, egoerak denok berdintzen gaitu eta. Sadar ingurukoa, Gobernuaren ezagutzen den ezkontzaren fruitua praktikara eramana.



David Mariñelarena

SEGALARIA

# «Apustu gehiagorekin, segarako zaletasuna piztuko litzateke»

Hirugarren urtez, Euskadiko Segalarien Txapelketan parte hartuko duen nafar bakarra da David Mariñelarena. Joan den asteburuan egin zen txapelketako lehendabiziko kanporaketa. Finalerdiak Lantz herrian jokatu dira, uztailaren 30ean.



●OSKAR MONTERO

**S**EGA ZORROZTEN HARRA-  
patu du Nafarkariak David Mariñelarena segalaria, Lantzeko bere etxean. Abereen lanak akitu ondoren, ohiko lan tresna hartzen du, bere burua txapelketarako prestatzeko.

■ **Nola ezagutu zenuen kirol hau, Nafarroan hain zaletasun gutxi izanda?**

Ni abeltzaina naiz, eta sega erabiltzen dut nire lanetarako, baina egun batean telebistan erakustaldi bat ikusi nuen eta gustatu zitzaidan. Oso burugogorra naizenez, segalari baten telefonoa lortu nuen azkenean, eta deitu nuen Lantzeko festetara etortzeko. Erakustaldia egin ostean solasean aritu ginen luzez, eta animatu ninduten Euskadiko txapelketan parte hartzera, behar nituen laguntza haiek emanen zidatela erran zidaten, eta horixe egin nuen.

■ **Baina txapelketan parte hartzeko taldetxo bat ere behar duzu belarra biltzeko, pisatzeko eta abar.**

Bai, nire taldekoak denak Lantzekoak dira, zorroztailea izan ezik. Taldeko hiruk zarez biltzen dute nik ebakitako belarra, beste hiruk eskuz hartzen dute sareetan paratzeko eta beste bik epailearena egin behar dute belarra pi-

satzen, bat gurekin eta beste beste talde batean. Taldea aise bildu nuen, baina ongi antolatzea ez da hain erraza, joan den urtean behin bakarrik entrenatu ginen eta gero galduta ibili ziren. Ea aurten maizago biltzen garen.

■ **Zein da ikasi behar den teknika lana ahalik eta hobekien egiteko?**

Teknika ahalik eta baxuen ebakitzea da, pisua behean dagoela erraten baitute, baina, horretaz gain, gorputzaren jarrera egokia ere izan behar da, eta, kirol guztietan bezala, arnasketa kontrolatzea. Kolpe onak eta seguruak eman behar dira, gainera.

■ **Zuri zer da zailen egiten zaizuna?**

Gauza horiek guztiak batera kontrolatzea. Gauza batean kontzentratzen baldin ba-

naiz, besteak ahazten zaizkit edo okerrago egiten ditut. Dena den, aurten jarrera landu dut gehiago, eta espero dut hori lehiaketan nabaritzea. Ongi aritzeko ez da gimnasio-ra joan behar, modu bakarra asko entrenatzea da.

■ **Zure herriko lagunek leku guztietara jarraitzen zaituzte, pankarta eta guzti. Horrek lagunduko dizu, ezta?**

Bai, hori oso polita da niretzat. Egun horretan laguntza handia ematen dute, eta horrek bakarrik betetzen nau. Haiek ere ilusionatuta daude.

■ **Joan den udan, abuztuan, Eslovenian izan zinen Segalarien Nazioarteko Txapelketan parte hartzen. Zer-nolako esperientzia izan zen hura?**

Izugarria izan zen, Euskal

Herritik bost neska eta hamar mutil joan ginen, eta aukera ikusita ez nuen bi aldiz pentsatu. Austria, Eslovenia, Bavaria, Suitza eta Hego Tirolgo taldeak izan ziren. Gu laugarren postuan gelditu ginen, eta emakumezkoetan Izaskun Larrarte gipuzkoarra izan zen onena. Aurten ere joan behar dugu abuztu aldean.

■ **Han ezberdin puntuatzen dute. Zer hartzen dute kontuan?**

Abiadura eta garbi-garbi uztea baloratzen dute, arinago egiten da. Hemen, berriz, maratoi antzeko zerbait da, motelago egiten da, ez du hainbesteko emoziorik.

■ **Erran behar da, halaber, han askoz zaletasun handiagoa dagoela. Zergatik dela uste duzu?**

Hemen serioago hartzen da kirol hau, eta hemen egiten dugun moduan gogorragoa da. Han beste modu batez ikusten dute, folklore edo kulturaren barnean sartzen dute, eta festetan egiten dute.

■ **Gipuzkoa aldean ere Nafarroan baino zaletasun handiagoa dago. Zer dela eta?**

## soslaia

24 urteko Lantzeko gazte hau arrunt kirolzalea da; segan aritzeaz gain, lasterketetan ere hartzen du parte. Egun, aste barruan bere kabuz entrenatzen da, eta asteburuetan, Julian Mitxelenarekin, Euskadiko txapelketan emaitza onak erdiesteko.

David Mariñelarena Arribeko kanporaketan ariko da uztailaren 16an. Ordu erdian kilo gehien ebakitzen duten lehenengo biak Lantzen jokatu diren finalerdieta pasatuko dira.

Aspaldiko kirola da hau. Orain dela hogeita bost urte baino gehiago praktikatzen omen zen, baina, orain ez bezala, azkarren eta hobekien moztzen zutenek irabazten zuten.

• Ez dakit, nik ere galdetzen dut hori. Gogorra delako? Aizkora ere gogorra da, eta hoberenak nafarrak dira. Beno, hoberenetarikoak erran behar dugu orain.

■ **Aizkora munduan ohitura gehiago dago apustuak egiteko...**

Bai, hori puntu inportantea da sega munduan, apustu gutxi egiten dira eta diru gutxi dago jokoan. Beharbada apustu gehiago egingen balira, zaletasuna piztuko litzateke. Tartean dirua baldin badago, errazagoa da jendea etortzea; tristea da, baina...

→ Txari Eleta

«Laguntzen nauen taldea aise bildu nuen, baina ongi antolatzea ez da hain erraza. Joan den urtean behin bakarrik entrenatu ginen, eta gero galduta ibiltzen ziren. Ea aurten maizago biltzen garen»





## Nafar Kronika

Mikel Beramendi

### Parlamentuaren oinarriak

**F**afarroan azken urteetan egin diren herri lanak egoera politikoaren isla bihurtu dira. Horra hor, esate baterako, Parlamentuaren egoitza berri-zaharra. Zaharrean oinarrituriko deus berririk egiterik ez dagoenez, erortzen hasi da. Egunkariak diotenez, Castejon parlamentuburuak txostena eskatu du horren arrazoiak jakiteko. Lizarrakoak, nire iritziz, ez zuen horren beharrik, bere alderdiaren egoerari erreparatuz misterioa ulertzeko argia aurki lezakeelako. Etxe berria egiterakoan oinarri eta horma berrien aldeko apustua egin behar da, bestela Parlamentuaren egoitzan gertatu bezala gertatuko delako. Badakigu, bai, obra amaitu eginen dutela. Baina hasierako prezioa garestitzeaz gain, uste baino berandua- go bukatuko da. Arazoa dela-eta kezkatutik agertu den presidenteak bere alderdiarena askoz larriagoa dela kontuan har dezala. Izan ere, azken urteotako lotsagabekeriak oinarri sendoak zituen alderdia lur jota utzi ondoren, zaharreko hondarrekin egin nahi zuten berria eta, astearteko plenoan segituz gero, Biana-ko Printzea plazako egoitzan karneta eskatu beharko dute noizbait Jauregiko bulegoetara itzuliko badira.

### MUSIKA

- **Zangoza:** Gaur, Samsara taldeak Espejo tabernan joko du, 21:30ean, eta Khamul taldeak Blues tabernan, 23:00etan.
- **Burlata:** Lengua de Trapo taldeak Aldabea peñan joko du gaur, 22:30ean.
- **Barañain:** Nafarroako eta Gipuzkoako 65 txistulari elkartuko dira igandean, Udaletxe plazan, 10:00etan. Ondoren kalejira egingen dute.

### BERTSOLARIAK

- **Uztaritze:** Gaur, 19:00etatik aurrera, bertso afaria egingen dute Latsa elkartearen Ellande Alfaro eta Xanti Iparragirrekin.
- **Donibane-Garazi:** Bertso Izar Gaur izanen da gaur Lakarra ostatuan Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Sustrai Kolina eta Mikel Altzuart bertsolariekin.
- **Zuraide:** Gure Irratiaren urteurrenaren kariatara, Txato, Aitor Sarasua, Ortzi Idoate eta Eneritz Zabaleta bertsolariek saioa eskainiko dute igandean.

### HITZALDIK

- **Iruñea:** Euskararen historia Errioxan gaia izanen du mintzagai Martin Martinez Saenz de Juberak gaur, 20:00etan, Erraldoien Txokoan.

### ANTZERKIA

- **Iruñea:** Gaur, bihar eta etzi, 22:00etan, *La frigidez como manifestación explosiva de la ninfomanía* antzezlan eskainiko du Belladona taldeak Nafarroako Antzerki Eskolan.
- **Bera:** Berako hiru ikastetxeetan urte osoan egin den Antzerkia eta Eskola egitasmoaren emaitza aurkeztuko

## gure aukerak

da gaur jendearen aitzinean. Ikastetxeetako Lehen Hezikuntzako taldeek euren lanak erakutsiko dituzte, 19:00etan kultur etxean.

• **Iruñea:** Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoek *Musikalai* ikuskizuna antzeztuko dute asteazkenean, 18:00etan, Iruñeko gotorlekuan.

• **Barañain:** Asteazkenean, *Izarrrak* lana taularatuko du Paraiso Antzerkia konpainiak, 18:00etan, udaletxe-ko erabilera anitzeko aretoan.

### LEHIAKETAK

- **Arbizu:** Igandean Corpus Egunko I. Argazki Rallya egingen dute, Zizkerte kultur taldeak antolatuta. Lehiaketa goizeko bederatzietan hasiko da, udaletxean.

### BESTAK

- **Iruñezun:** Gaur hasi eta igandea arte, Trinitateko jaiak ospatuko dituzte. Gaur, rock kontzertua izanen da, kultur etxean (23:30); bihar, sagardotan egositako txorizoa emanen dute Erga-Larre-ko elkartean (21:30); eta etzi, dantzaldia izanen da 19:00etatik aurrera, Fortissimo taldearekin.
- **Barañain:** Sahats Euskaltegiaren Eguna ospatuko dute bihar. Futbito txapelketa (11:00, kiroldegia), herri kirolak (11:30, institutuko frontoia), kalejira (13:00, euskaltegitik) eta dantzaldia (17:00) izanen dira, besteak beste.

### ARROTXAPEAKO JAIK

Ostirala 16:

- **20:00:** Txupinazoa, Carbonillan, Ekaitza txaragak eta txalapartari-ek girotua.

- **21:00:** Ortzadar dantza taldearen emanaldia, Iturriotzaga plazan.
- **22:00:** Kontzertua, festa barrutian, Leihotikan, EH Sukarra eta Kontrairu taldeekin.

### Larunbata 17

- **11:30:** Antzinako jolasak eta Diabolo Txapelketa, Corralillosen.
- **17:00:** Txorrotada, Carbonillako patioan. Zoaz bainu freskoa hartzera.
- **19:00:** Erraldoien konpartsen irteera, San Blas, Santa Engrazia eta Sedas lantegiko atzealdetik.

- **00:00:** Dantzaldia, Drindots taldearekin.

### Igandea 18

- **12:00:** Jotak, Siempre Navarros taldearekin, festa barrutian.
- **16:30:** Gaztelu puzgarriak Maiteminduen parkean.
- **19:00:** Jaien akabera ekitaldia, festa barrutian. Txalaparta, laia lasterketa, herri kirolak, agurra auzoko errepresaliatuei, eta etxezainen azken dantza.
- **22:00:** Azkeneko zezen suzkoa eta zezen gurpildunak, Urzainki plazan.

